

«Ikusleok konturatu dira euskarazko antzerkiaren mailak ez diola inolako zorrik erdarazkoari»

Duela gutxi Patxo Telleriak idatzi eta zuzendutako 'Kandida' antzezlanaren estreinatu dute Arriaga antzokian



Patxo Telleria, Arriagan egindako aurkezpen batean.



Karlos Del Olmo

Larunbata, 11 apirila 2026, 00:34

Seguir

1 comentario

Guardar

Compartir

Bilboren bihotzean, 1984etik aurrera, euskal antzerkigintzan ebakitako ibialdi luze eta emankorrean beste pausu bat emanda, duela gutxi Patxo Telleriak idatzi eta zuzendutako 'Kandida' antzezlanaren estreinatu dute Arriaga antzokian. Hori aitzakiatzat, itaun batzuei erantzun dizkie Patxok.

-Nondik nora sortu zen 'Kandida'ren asmoa?

-Antzezlan baten sorrera zehaztea ez da inoiz erreza izaten. Lehengo urtean zirriborratu nuen narrazio sorta batetik dator. Lagun batek esan zidan istorioa antzezlan baterako modukoa izan zitekeela. Eta narrazioa antzerkirako moldatzen hasi nintzen.

-Zer esango lioke egungo Patxok duela hainbat urte ikastetxean esketxak antolatzen hasi zen Patxo gazte horri?

-Denborak eskaintzen didan perspektiba lagun, zera esango nioke, batxilergoa bukatu eta berehala, antzerkian, dramaturgian, formakuntza akademikoa jasotzeko. Ez nekien ofizio honetan ari izango nintzela bizitza osoan. Jolas batean bezala hasi nintzen, euskararen aldeko militantziagatik, artista izateagatik baino.

-Gomutan duzu zeure debuta?

-Bai, 'Maskarada'n sartu nintzen kasualitatez. Handik hilabete batzuetara, Dario Foren 'Pistolaren begi zuri-beltzak' antzezlanean parte hartu nuen, protagonista, gainera. Campos Eliseos antzokian izan zen. Kasualitatez, antzoki hartan bertan egona nintzen txikitan, 'El Caserio' zarzuelan, figurantearena egiten, aitak garai hartan zarzuela konpainia amateur batean baitzegoen. Egun hartan ikasi nuen aktore izateko behar den lasaitasuna banuela.

-Antzerkiaren inguruko ia behargintza guztietan jardun duzu, antzezle, zuzendari, idazle, itzultzaile, enpresaburu, irakasle...

-Aktore hasi nintzen, baina nire benetako joera idaztearena da, eta berehala hasi nintzen, aukera neukan guztietan, moldaketak egiten, zirriborroak idazten... Antzeztea gustukoa dut, ondo pasatzen dut, baina ez da nire benetako bokazioa. Zuzentzea ere oso gustukoa dut, antzezlan bat paperetik eszenatokira itzultzeko prozesua oso interesgarria iruditzen zait. Baina, batez ere, idaztea da nire gogoko lana. Horretan sentitzen naiz benetan sortzaile.

«Aitor Mazoren alabarekin 'Kandida'n lan egitea oso esanguratsua izan da niretzat»

-Mikel Martinez...

-Nire bikotekidea, aspalditik, taula gainean, 'Maskarada'ren garaietatik. Bera gabe nire ibilbidea oso desberdina izango zen. Oso desberdina. Asko zor diot. Nik esango nuke asko zor diogula elkarri. Berak aberastu nau eta nik aberastu dut. Beste bikotekide bat izan nuen, ahaztu nahi ez dudana: Aitor Mazo zena. Orain, haren alabarekin 'Kandida'n lan egitea oso esanguratsua izan da niretzat.

-Zein dira zure antzerki erreferentziak?

-Hasieran, Dario Fo, gai politiko eta filosofikoei buruz komedia dibertigarriak eta, aldi berean, sakonak egin zitezkeela erakutsi zidalako; eta Gabriel Aresti, ez hainbeste antzerkilari gisara, baina bai poeta eta eredu soziopolitiko modura.

-Zure jarduna lagungarri ederra izan da euskal antzerkigintzaren zutabe indartsu bat Bilbo aldean finkatzeko. Beti izan duzu argi euskaraz jardun beharra?

-Oso modu naturalean sortu zen euskararena, 'Maskarada'n erori nintzelako. Geroago sortu zen benetan euskararen alde hautatu behar izatea: Tartean talde berria sortzeko unean, orduantxe erabaki genuen 'Maskarada' ren ereduari jarraitzea.

-Zaila izan da orain arte euskal antzerkigintzan iraun ahal izatea?

-Zaila da, dudarik gabe. Nik iraun dut arlo askotan mugitu naizelako: telebistan, zineman, antzerkian, bikoizketan; aktore, zuzendari, produktore eta idazle. Soilik aktore izan banintz, ez dut uste iraungo nukeenik.

«Formakuntza akademikorik gabeko idazlea naizenez, ekinez ikasi dut: entsegu-errore bidez»

-Zelan ikusten duzu euskal antzerkigintza egun?

-Nire ikuspuntu subjektiboa da: eskaintza izugarri aberastu da, geroz eta talde gehiago, geroz eta eskari gehiago, ikusle gehiago ere bai... Ikusleok konturatu dira euskarazko antzerkiaren mailak ez diola inolako zorrik erdarazkoari. Baina euskarazko antzerkiak oraindik baditu bere gabeziak. Nahiko etsigarria suertatzen da. Ni ohituta nago, baina amorru pixka bat ematen du.

-Sari bat baino gehiago jasotakoa zara.

-Beti pentsatu dut sariak oso arbitrarioak direla. Baten bat jasotzen dudanean, poztu egiten naiz, nola ukatu hori?, baina ez zait burutik kentzen hautaketa arbitrarioa eta apetatsua dela. Sarien inguruko zeremoniek eta inguruan mugitzen den guztiak ez naute batere harrapatzen.

-Zer iritzi duzu Arestik proposatu zuen euskal antzerki konpainiaz eta erakunde nazionalaz?

-Berrogeita hamar urte beranduago, oraindik ez dugu lortu. Ozta-ozta, aktoreentzako eskola ofizial bat dago. Alde horretatik, oso atzera gabilta. Hemen, erakunde politiko-administratiboek ez dute inoiz horretan sinistu, ez dute inolako pausurik eman.

-Zelan mamitzen duzun eszenarako literatura dramatikoa?

-Formakuntza akademikorik gabeko idazlea naizenez, ekinez ikasi dut: entsegu-errore bidez. Senez, literatura dramatikoaren zenbait kontzeptu barruan neuzkan. Bestaldetik, hainbat urtez eszenatoki gainean aktore gisa egoteak beste tresna bat eskaini zidan: erritmo eta hizkera teatralak.

-Baliabide guztiak edukita, zer antzezlan edo ikuskizun egingo zenuke?

-Kaxoian «erokeria» bat daukat: Juan Sebastian Bach-en 'San Mateoren Pasioa' hartu eta letra berria, gaur egungoa, jarri nion. Oraingo trama bat, laikoa, agnostikoa, salaketa sozialekoa. Testu osoa idatzia daukat, jatorrizkoaren neurri berdinarekin, eta errimarekin. Euskaraz. Aurrekontu handia beharko luke, baina ia ziur naiz ez zela alferrikako gastua izango.

[Temas](#) [Euskera](#) [Aitor Mazo](#)

 1 comentario

 Reporta un error